


**NAFARROAKO
HIZKUNTZA
POLITIKAZ**



HIZKUNTZA POLITIKA NAFARROAN, GAUR

Euskararen aldeko hizkuntza politika aktibo eta esplizitua egiten da Nafarroan. Hainbat udalek egiten dute, baita Nafarroako Gobernuaren egituraren zati batek ere.

Oro har, euskarari irabazi batzuk ekarri dizkion arren, muga handiak dauzka (legalak, ekonomikoak, politikoak...) eta ez da inolaz ere aski euskararen egoera iraultzeko eta normalizazioaren bidean jartzeko.

The background of the slide is a photograph of a stone wall, likely part of a castle or fortification, with a clear blue sky above it. The wall is made of large, rectangular stone blocks with visible mortar lines. The sky is a vibrant, clear blue.

Euskararen aurkako hizkuntza politika aktiboa egiten da Nafarroan, esplizitua batzuetan eta inplizitua beste batzuetan.

Zenbait udalek egiten dute, Nafarroako Gobernuak egiten du, baita Estatuak eta justizia administrazioak ere. Euskara muga jakin batzuetan hesituta edukitzeko helburuan nahikoa emaitza ona lortzen ari da.

Hizkuntza politikak utzitako datu eta adierazle esanguratsu batzuk

- ☛ Marko legalak bere horretan dirau: Nafarroa hiru eremutan zatitu zuten 1986an eta, 36 urte geroago, berdin jarraitzen dugu.
- ☛ Gaur egun, oraindik ere, Nafarroako eremu zabal bateko deialdi publikoetan alemana, ingelesa nahiz frantsesa merezimendu gisa baloratzeko atea irekita dago, eta euskarak ate hori bera itxita dauka.
- ☛ Dekretua: Nafarroako Gobernuak laster onartuko duen merezimenduen dekretua, aurreko egoerarekiko atzerapausoa da.
- ☛ Euskarazko irakaskuntzaren mugak: % 30aren langa
- ☛ Parlamentuak PAI programa hizkuntza-eredu bihurtzea erabaki du.
- ☛ I. Plan Estrategikoa onartu zen, bigarrena idatzita dago baina Gobernuak onartu gabe.
- ☛ Aurrekontuak: nahikotasunera iritsi gabe, azkeneko urteotan igoera.
- ☛ Lege aldaketak: 2015ean D eredia eremu ez euskaldunera zabaldu zen; 2017an 44 udalerrri eremu mistora pasa ziren.






- ♦ Erakunde nagusietatik eta botere publikotik hizkuntza politika eraginkor bat **egin lezakeenak, ez du egin nahi**. Eta gehiago egiten du kontra alde baino.

- ♦ Eta hizkuntza politika aldekoa eta eraginkorra egin dezan sortu eta bideratu beharko litzatekeen **presio sozial eta politikoa, oraingoz bederen, ez da behar adinakoa**.

- ♦ Kolapsoa gehixko esatea izanen da akaso, baina larrialdiaz hitz egin genezake lasai. Ziurgabetasun garai hauetan, abiada handiko gizarte batean, euskararentzako oso berme gutxiko egoera batean gaude.

Bizi ala iracun?




AGERRALDIA



HORDAGO







☛ Euskalgintza indarberritzea: hauspoa.

☛ Borondate politikoa, erabaki politikoak hartzeko.

♦ Egoera optimoa: estatu egiturak, hizkuntza politika burujabea egiteko.

♦ Horra iritsi arte, adostasun sozial eta politiko ahalik eta handiena eskuratu.

♦ Bitartean, dauzkagun baliabideekin eta indarrekin hizkuntza politika ahalik eta eraginkorrena egiten eta eginarazten saiatu.

LEHENTASUNAK?

Hizkuntza eskubideak eta euskararen ofizialtasuna; ezagutzaren unibertsalizazioa; hezkuntza eta euskalduntze alfabetatzea; arnaguneak; lan-mundua; sare sozialak eta pantailak; hiztunen kontzientziazioa eta aktibazioa; euskal kulturaren transmisioa eta difusioa...

GAKO/GALDERA BATZUK XXI. MENDEKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO

- ☛ Hizkuntza politikarentzat koltxoi eta testuinguru sozial eta politiko egokia sortzea. Igerilekuan ura jarri behar dugu.
- ☛ Hizkuntza politikak ongi konektatzea hiztunek izanen dituzten beharrekin, interesekin, emozioekin, motibazioekin.
- ☛ Gauzak 20 urte barru ez dira izanen gaur bezalakoak. Teknologia lagundutako harreman linguistikoek aseko gaituzte?

GAKO BATZUK XXI. MENDEKO HIZKUNTZA POLITIKARAKO

- ☛ Zergatik egingen du euskaraz, 20 urte barru, euskaldunak?
- ☛ Harreman-sareak nola egituratzen diren eta nola funtzionatzen duten ikusteko eta ulertzeko gai izan beharko dugu.
- ☛ Agertoki berrietara egokitzeko gaitasuna.

ZAILA BADA,

EZ DA EZINEZKOA